

**Buruntzaldean  
ekonomia eta  
enplegua suspertzeko  
hitzarmen berri bat**

**Larunbatean,  
Jostailu Erabilien  
Azoka**

**Jendetza batu zen  
Bizi Kalea festan**

# noaue



**Igande honetan, San Tomas**

**Eguberri aurreko  
festa ederrena**



**BAZKIDEEN TXOKOA** 

 **NOAUAKO bazkide guztien artean zozketatuko ditugu sari zoragarri hauek ABENDUAN**

**EGONALDIA ERRIOXAN**

LOGROÑOKO HOTEL BATEAN  
2 LAGUNENTZAKO BI GAU +  
GOSARIA+ BODEGARA BISITA.  **NOAUA BIDAIAK**

**ATXEGA JATETXEAN AFARIA**

  **atxega**  
2 LAGUNENTZAKO afaria  
Atxega Jauregian

**noaua! euskararen aterpe**  
Orain bazkide egiten bazara. Opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan  
Parte hartzeko aukera izango duzu  
(40€ urtean soilu) 943 360 321 / [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

 **FUNERARIA GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**  
MOMENTU LATZETAN GUZTIAZ ARDURATZEN GARA  
**943 36 21 63 (24 orduz)**  
•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK

  
[www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)

**10. URTEURRENA!**

**Otar-Goxo**  
Elkagaiak

Gabonetako berezitasunak  
eta otarrak prezio ezin hobean

Hirukide elkarteko kide diren  
familientzat... **%5 EROSKETA GUZTETIAN!**

  

| Harategiko berezitasunak    | Urdaitegiko berezitasunak | Etxeko berezitasunak    | Fruta dendakoak        |
|-----------------------------|---------------------------|-------------------------|------------------------|
| Txahal aspizuna             | Foie frexkoa eta Mikuit   | Kroketa bereziak        | Ananak                 |
| Idi aspizuna                | Ahate konfita             | Bakailu kokotsak        | Gaztainak              |
| Esneko arkumea              | Ahate magreta             | Krep ugariak            | Mahatsa                |
| Txerrikumea                 | Pate ezberdinak           | Arrain zopa             | Orejoiak               |
| Antxumea                    | Olagarroa ozpinetan       | Txipiroiak bere tintan  | Kiwiak                 |
| Kapoia                      | Olagarro egosia           | Arrain budina           | Bertako barazkiak      |
| Piularda, eliza,            | Antxoa ozpinetan          | Piper beteak            | Aukera bereziko frutak |
| Rosbeef, entrekota (1kg)... | Izokina                   | Txekor-masailak saltsan | Tartak                 |
| Txerrikume erre             | Iberiko aukera zabala     | Gula entsalada epela    | Gahon gozoak           |
| Arkume erre                 |                           | Ahate eta perretxiko    |                        |
| Antxume erre                |                           | entsalada epela         |                        |

Zubiaurrenea, 2 • 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

## Albisteak iruditan

# Korrikaren 20. edizioa girotzen

**D**antzan eta abestuz, udaberrian ospatuko den euskararen aldeko lasterketarako girotzen hasi gaituzte Usurbilen, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Korrikari loturiko ikuskizun berrienari esker. Abenduaren 11n aurkeztu zuten "Tipi-tapa Korrika", leporaino bete zuten Oiardo Kiroldegian.

## Korrika laguntzeko deia

Euskararen aldeko lasterketa gu guztion laguntzaren beharrean da. Martxoaren 30ean Otxandion abiatu eta apirilaren 9an Iruñean amaituko den 20. Korrikaren materiala salgai dute jada Etumeta AEK euskaltegian; sudaderak, kamisetak, lepokoak, agendak, giltzarriak... Astelehenetik ostiralera, 09:00-12:00 artean edo 16:00-19:30 artean gerturatzen bazarete eskura dezakezue materiala. Igandeko San Tomas festan ere postua jarriko dute frontoian. Ez ahaztu bestalde, euskaltegi-ara gerturatuta, Korrika Laguntzaile izan



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek abenduaren 11n aurkeztu zuten "Tipi-tapa Korrika" ikuskizuna. Leporaino bete zuten Oiardo Kiroldegia.

gaitezkeela. 12 euroren truke, Korrika Laguntzailearen pina, urtariletik aurrera Euskal Herriko ehunka komertziotan beharpenak izatea ahalbidetuko dizun Korrika laguntzaile txartela eta txartela onartuko duten komertzioen zerrenda dakarren katalogoa jasoko duzue.

## Argibide gehiagorako

Etumeta AEK euskaltegiaren egoitzan: Nagusia, 43  
Telefono zenbakia: 607 609 379.  
Emaila: [usurbil@ae.k.eus](mailto:usurbil@ae.k.eus)  
Web orriak: [ae.k.eus/](http://ae.k.eus/)  
[munterri.blogspot.com.es](http://munterri.blogspot.com.es)

## Laburrean

### Hurrengo astekoa, urteko azken NOAUA!

Abenduaren 23an plazaratuko dugu urteko azken NOAUA!. Hurrena urtarrilaren 13an kaleratuko dugu. Zorion agurrak, oharrak... Abenduaren 19rako igorri [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera.

### Emakume adindu batek izan zuen ezbeharrean arduratu ziren herritarrei esker ona adierazi nahi die familiak

"Azaroaren 29an arratsaldeko 18:30ak aldera auto batek aurretik eraman zuen gure amona, San Inazio kaleko oinezko bidea zeharkatzen ari zela. Senitartekook, lerro hauen bitartez, bertan zeudenei eta gure

amonaz arduratu zirenei gure esker ona eman nahi diegu bihotz bihotzez. Nahiz eta, hitz hauek nahikoak ez izan egindako guztia eskertzeko. Mila-mila esker, adeitasunez senitartekoak".

# noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) // [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Beatriz Alda,

[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)

#### Diseinu berria:

Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

[erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

#### Banaketa:

Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herria!



Imanol Ubeda

## Elkarriketaren bidea

**2**006an eten zen Elkarri mugimenduaren bidea. Berria egunkariaren hemerrotekan topatu ditut Jonan Fernandez adierazpen hauek. “Guretzako autobia-aren esperientzia giltzarria izan zen Elkarri imajinatzeko. Ikusi genuelako elkarriketaren ideiak oso indar gutxi zeukala gizarte honetan, bai politikaren munduan eta bai gizarte eragileen artean. Lurraldea garaian, hasieran helburuak ekologikoak ziren, baina bukaeran irtenbide elkarriketatua bilatzea zen helburua. Hor ikusi genuen akordioaren eta akordio gabeziaren arteko marra zein estua zen, eta zer indar behar zuen elkarriketaren bideak”.

Azkenaldian izan dudana kezka bat berretsi dit Jonan

Fernandezen aspaldiko hausnarketa horrek.

Hamar urte pasa dira. Eta hamar urteotan gauzak aldatu egin dira, gu ere aldatu garen neurrian. Baina esango nuke elkarriketaren ideiak oso gutxi kotizatzen duela orain ere. Elkarriketaren bideak oso hauskorra jarraitzen duela izaten.

GuraSOS eta Gipuzkoako Foru Aldundiko agintarien arteko argazkirik ez dut inon ikusi. Kazetariok behintzat, ez dugu enkontruaren argazkirik ateratzeko abagunerik izan. Oraingoan. Horrelakoetan, argazkia ikur bat baino ez da. Elkartu direla esatera datorren irudia. Pauso bat litzateke.

GuraSOSek bide laburra osatu du. Baina bada nor. Ez da elkarte edo ente juridiko bat izango (edo bai, eskapatu egi-

ten zait). Bere metodologia akaso ez da beti egokiena izango (ekitaldietan umeen ‘erabilera’ kritikatu izan zaio GuraSOSi, eta bat etor naiteke zehaztapen horrekin). Baina denbora honetan guztian, guraso talde handi eta zabal baten kezka bideratzen asmatu du. Giza-talde baten bozgorailu bihurtu den aldetik, atenditua izateko eskubidea du. GuraSOSekin batu nahi ez izateak irakurketa makurra egiteko bidea zabaldu dezake bestela: guraso elkar-teak denbora honetan erdietsi duen status sozial horri argirik ez ematea. Gatazka honetan, ez dadin nor bilakatu.

Gai honi buruz ari garenez, bada asteotan buruan dudana beste kontu bat ere. Agintean direnak euren hauteskunde-programan zetorrena bide-

ratzen ari dira: eufemismoak eufemismo, errauste-plantararen eraikuntza.

Bestaldean, errauste-plantararekin kritiko den mugimendua zabal bat aurkitzen da. Zero Zabor mugimendua, Erraustegiaren Aurkako Mugimendua, Erraustegia Erabakia Taldea, Gipuzkoa Zutik, OEIT, GuraSOS... Indarra egiteko gai den talde ezberdin asko, bakoitza bere funtzio propioarekin. Baina lidergoa atomizatuegi ikusten dut.

Helburua irtenbide elkarriketatua bilatzea bada, Lurraldea mugimendua ez zait ispilu txarra iruditzen. Adostasuna helburu duen balizko elkarriketa prozesu batean, egokia litzateke erreferentzia argi bat eta bozeramale sendo bat egituratzea.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai

### Ika-Mika

## Lontxo Zubiriari

**Z**ure idatziak aukera ederra eman digu bertan azaltzen dituzun zenbait adierazpen bihurrituak, hau da, okerrak argitzeko.

Batetik, zure burua Usurbilgo herritar guztien ordezkari bezala aurkezten duzu; zer esanik ez, gezur eta idatzera azpikeria bat besterik ez dela.

Jarraian azaltzen duzu nolako zama handia etorri zitzazun gainera, Zubietan errauste planta ipini behar zutela jakin zenuenean. Noski, gure herriari dagokion erabakia izanik tri-

pako min handiak pasako zenuen; baina, beste herrietan urtetan, pasa dituzten arazoez ezer gutxi aitatzen duzu; elkartasun falta eta planteamendu benetan zeurekoia ekartzen diguzu. Ez gara bat etortzen, noski! Gure gizalegea eta etika medio direla horrelakorik ezin duzu onetsi.

Gure taldeko kide batzuk hitzaldi batera joan izana aintzat hartzen duzu. Lista pasatzen al duzu? Era berean, inongo lotsarik gabe gure taldekide bat izendatzen duzu, bere iritzia jakin nahian. Nor

zara zu EAJko kideak “txintxo” edo “gaiztoak” diren sailkapena, zure irizpideen arabera, egiteko? Betiko “nirekin edo nire kontra”.

EAJ-k azken hauteskundeetan, bere programan Zubietan eraikitze “Gipuzkoako Ingurumen Gunearen” asmoa zabal eta garbi adierazi zuen. Bai, noski, zuk horren berri baduzu.

Minbiziaren mehatxua ekartzen diguzu bukaerarako, zorritzarrez jadanik gure artean ere badaukagu eta gaurkoz ez da Zubietan eraiki nahi

den erraustegiarengatik. Ez dugu Bizkaian, aspaldidanik martxan dagoen erraustetaren inguruan eztabaidarik sumatu, ezta zuk aipatzen dituzun arriskurik ere. Guk uste dugu gure umeentzako eta gure gizartearentzako zuk zure idatzian azaltzen duzun erakustaldi gaitzesgarria dela benetako mehatxua: ideien, gizalegeen eta etikaren mehatxu larria.

Zure eskaerari dagokionez: herri honen alde ari gara!

**Usurbilgo EAJ-PNV**

\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: abenduak 23. Idatzia ekartzeko azken eguna: abenduak 19.



## Lanera itzuli dira Ingemarreko langileak baina jorrazeko bidea geratzen da oraindik

**A**maitu da bost hilabete-ko greba Ingemarreko langileentzat. Akordio batekin bukatu dute gainera. Akordio on batekin, Langileen Batzordeko ordezkariak abenduaren lehenean Donostian egindako agerraldian adierazi zuten. Enpresaren etorkizunaren alde egin duten borroka giltzarritzat jo dute adostasun honetara heltzeko. Halere, hilabeteotako borroka hemen ez dela amaitzen nabarmentzen dute.

“Ibili beharreko bidean geratzen zaigun tartea luzea da oraindik. Hori dela-eta, Enpresa Batzordea adi egongo da, eta jarraipen estua egingo du, eraginpeko alderdi guztiek itundutako baldintzak bete ditzaten”, gogorarazi dute.

### 51 langilek jarraituko dute lanean

Ingemar zabalik mantentzeko taldeko zuzendaritzarekin erdietsi duten akordioaren baitan, “plantillan 51 langileek jarraituko dute lanean, bideragarritasun-plan bat gauzatzeko da-Usurbilgo ekoizpen-jarduera ziurtatzeko-, akziodunen batzak kapital-gehikuntza bat onartuko du, eta herri-erakundeek esku hartuko dute proiektuan”.

Argi diote LABeko ordezkari batek eta ELAko 4 ordezkariak osaturiko langileen batzor-



Akordio batekin itxi da lan gatazka. Baina hala ere, adi jarraituko dute oraindik.

### LANGILEEN ORDEZKARIAK

**“Gu sinetsita geunden Ingemar S.A. bideragarria zela ekoizpenaren aldetik, arazoak kudeaketaren eta antolaketaren arlokoak zirela”**

deak honaino jorraztu duten borroka bidea giltzarritzat jo dute. “Langileok bagenekien egoera oso zaila zela (2015eko abenduan enpresaren itxiera prestatzen ari ziren), baina ez genuen horregatik etsi. Gu sinetsita geunden Ingemar S.A. bideragarria zela ekoizpenaren aldetik, arazoak kudeaketaren eta antolaketaren arlokoak zirela. Ez genuen onartu, inoiz ere, enpresaren itxiera, ezta industria-jarduera bukatzea ere”, diote. Hala, ekainaren 6an hasi eta bost hilabete iraun duen greba mugagabeari ekin zio-

ten, bideragarritasun-plan bat adostu eta “Usurbilgo lantegia-ri egonkortasuna ematearren”.

### Irmotasunari esker

Ia lan talde osoak bat egin zuen deialdiarekin, eta “horrek airean eduki du taldearen jarduera, eta enpresak azkenean proposamenen bat jarri behar izan du mahai gainean”. Lan taldearen “borrokari eta irmotasunari esker jarraitzen duela Ingemar S.A.k Usurbilen. Izan ere, industria-jarduera bertan behera uzteko mehatxuaren aurrean, lozorroan eta egonean geratu beharrean, etorkizunaren aldeko borroka egiteko erabakia hartu zen. Usurbilgo Ingemar S.A.ko langileen borrokak erakutsi digu non dagoen giltzarria enpresen deslokalizazio-saiakerak geldiarazteko, enpresariaren erabakiak aldatzeko eta gure industria-sarea mantentzeko”.

### 2017ko udal aurrekontuak, udalbatza plenora

Jendaurrean eta talde politikoei aurkeztu eta udal barruko lanketa bidea osatuta, abenduaren 20rako 18:00etan udalbatza aretoan deituriko osoko bilkurara eramango ditu EHBilduk 2017ko udal aurrekontuak, ezohiko saioan hasieraz onar ditzaten.

### Erraustegiaren esleipena, abenduaren 27an

Erraustegia eraiki eta kudeatzeko lanak abenduaren 27an esleitu dituzte Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioak (GHK). 3 enpresa talde daude esleipena bereganatzeko lehian.

### Datorren astekoa, urteko azken NOAUA!

Esku artean duzuen 2016ko azken aurreko astekaria duzue. Abenduaren 23an kaleratuko dugu urteko azken NOAUA!. Ohi baino mardulagoa, gabonetako gehigarri eta 2017ko egutegiarekin. Honenbestez, zorion agur edo oharrik baldin baduzue, abenduaren 19a baino lehen ekarri NOAUA!ko egoitzara, edo bestela, [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera helarazi. Abenduaren 23koaren ostean, bi astez ez da NOAUA!rik izango, urtarrilaren 13ra arte.

### Ika-Mika

## Kutsadurak kirastuko gaitu

**I**nork nahi ez duen kirats makina jarri nahi digute Zubietako magalean, inork nahi ez duen gailua oparitu nahi digute bizitza osorako, inork nahi ez duen tximinia erraldoia.

Inork bere herrian nahi ez duena baina “opari” gisara jasotzeko zorian gaudena. Bizitza osoan etxeko balkoitik ikusi eta arnastuko dugun “gozoki” ederra zerbitzatu nahi digute.

Gozoki honek ez du marrubizko edota mendazko zaporerik izango, eztarria urratzerainoko zapore lakarra baizik eta ez da ezitia hartuaz sendatuko. Kantu saioek ez dute jadanik alaita-

sunik izango, pertsonen algarak goibelduko dira, Andatza mendian kukuaren kantua isilduko da...

**Iñaki Agirresarobe Arzallus**

# EAJ eta PSE, erraustegia gelditzearen aurka

Usurbilgo Udalak erraustegiari buruzko galdeketan herritarrek adierazitako iritzia defendatu eta erraustegia ez eraikitze-ko Udalak bere esku dagoena egiteko eskaeren aurka agertu dira Usurbilgo PSE eta EAJ-ko udal ordezkariak. Azaroaren 29ko osoko ohiko bilkuran izan zen.

Erraustegia Erabakia Herri Plataformak, eskaerok biltzen zituen mozioa aurkeztu zuen. Mozio hau ez zegoen aurreikusia gai zerrendan. Horregatik, lehenbizi gai zerrendan txertatu edo ez erabakitze-ko bozketa egin behar izan zuten. Mozioa tratatzea aho batez onartu zuen udalbatzak. Testu honen aurreko iritzia agertzerakoan ordea, ez zen erabateko adostasunik izan. EHBilduk Erraustegia Erabakia Herri Plataformaren eskaerekin bat egin zuen artean, eskaeron aurka agertu ziren PSE eta EAJ-ko udal ordezkariak.

**EAJ: "Ez da herri honen kezka"**  
Urriaren 23ko galdeketa-ko parte hartze datuei begira, emaitzak oso argi erraustegia-aren aurkakoak direla aitortu arren, gaia "ez da herri honen kezka" zioen Andoni Atxega EAJ-ko zinegotziak. Bere esanetan, %43,6ak baino ez baitzuen parte hartu galdeketa, "gehiengoak ez du parte hartu" zioen. Datu hau Udalak kontuan hartu beharko lukeela adierazi zuen. "Batzuk esan dute ez dela bere kezka eta



Artxiboko irudian, errauste-planta eraiki nahi duten gunea.

## ERRAUSTEGIA ERABAKIA

**Mozioa ez zegoen gai zerrendan aurreikusia.**  
**Gaia zerrendan txertatzea ahobatez onartu zen.**  
**Gerora, testuak EHBilduren babesa bakarrik jaso zuen**

hori kontuan hartu behar da", gaineratu zuen.

### PSE: "Partehartzea erdira ere ez da iristen"

PSE-tik Fermin Oruek ere harri-dura agertu zuen galdeketa-ko parte hartze datuen inguruan. "Erdira ere ez da iristen", zioen.

### Alkatea: "kezka sakon baten adierazgarri da galdeketa"

Adierazpenok, zeresana sortu zuten udal gobernu taldeko ordezkarien eta baita udalbatza aretara bertara joandako Erraustegia Erabakia herri plataformako kideen artean ere. Galdeketa herritarren

%43,6ak parte hartu izana, oso esanguratsutzat jo zuen Xabier Arregi alkateak, eta hala adierazi zaiola Udalarri, herritik kanpotik jaso dituen hainbat mezuen bidez. Are gehiago, galdeketa egiteko egon diren oztopo eta zailtasun guztiak kontuan hartu behar direla zioen. Galdeketa ez baitzen loteslea, ez zen izan baimendu, horrek suposatzen duen baliabide mugekin. Alkateak ere aipatu zuen, "herritarren-gana iritsi ezinak" ere ez zuela eragin parte hartze handiagoa izatea. Halere, "galdeketa ez lotesle bat egin eta %43,6ko parte hartzea lortzeak, gai honi buruz herritarren artean benetako kezka sakona dagoela adierazten du".

Ildo beretik, Alaitz Aizpurua zinegotziak zioenez, oposizio-tik eginiko "baieztapen hori zalantzan jarri dezaketen datu asko jar genitzake mahai gainean". Adibide moduan, irailaren 25ean ospaturiko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeek herritarren artean izan

zuten oihartzuna aipatu zuen. Baliabide anitz bideratzen diren hauteskunde ofizial edota lotesleak izanik ere, bozketa hauetan %63 inguruko parte hartzea izan baitzuten bozketok Usurbilen.

## Herriaren hitza defendatzen segitzeko eskaera egin du Erraustegia Erabakia plataformak

Adierazpenok ez zuten oposizioaren posizionamendua aldarazi. EHBilduk babestu zuen Erraustegia Erabakia Herri Plataformaren mozioa eta koalizioak duen gehiengo osoari esker onartu zen testua. PSE eta EAJ-ko udal ordezkariak aurka bozkatu zuten.

### Eskerrak Udalarri

Erraustegia Erabakia Herri Plataformak mozio honen bidez, eskerrak helarazten dizkio Usurbilgo Udalarri. Galdeketa-ko emaitzen berri emateko, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Gipuzkoako Batzar Nagusiekin, Donostia eta Usurbilgo Udalekin iragarri zuten elkarriketa erronda amaituta, Usurbilgo Udalak "herriaren hitza-errekiko azaldu duen errespetu eta konpromiso jarrera" gatik. Herriaren hitza defendatu eta erraustegia eraikitzea eragozteko bere esku dagoen guztia egiteko ahal duen guztia egitzen segitzea eskatzen diote Udalarri.

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

USURBILGO ATARIA

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

## Erraustegia Erabakia: “Zuek ukatu diozue hitza herriari”

Oposizioak eginiko adierazpenei erantzun zieten Erraustegia Erabakia Herri Plataformatik. Plataformako kideetako batek, EAJ eta PSE-ko udal ordezkariak seinalatuz, “zuek ukatu diozue herriari hitza” adierazi zien. Eta orain ez esateko, herriak zer nahi duen edo ez. Galdeketa zer baldintzetan antolatu zen kontuan izanda, eta halere erakarri zuen parte hartzea ikusita, oposiziotik adierazitako argudioek ez zutela funtsik adierazi zuen.

Alkateak ere gogorarazi zuen, Udalak erraustegiari buruz herritarrei galdetzeko baimena eskatu ziola Espainiako Gobernuari. Debekua jaso zutela, baina debeku hura, EAJ-PSE alderdiak agintean dituen Gipuzkoako Foru Aldundiak landutako txosten batean oinarritu zutela. Udalak galdeketa egiteko baimena jaso izan balu, “areagotuko



Erraustegiari buruzko galdeketa antolatu zuen Erraustegia Erabakia Taldeak. Bozkatu zutenen artean, %97,9a erraustegiaren aurka azaldu zen.

zen parte hartzea” azpimarratu zuen Arregik.

### Kudeaketa eredu propioa

Bide batez, eskerrak helarazi zizkion alkateak Erraustegia Erabakia Herri Plataformari; batetik, erraustegiari buruz herritarrei “iritzia argi eta ozen adierazteko” aukera

eman izanagatik. Eta bestalde, “erraustegiari aurre egiteko beste bide bat irekitzeagatik”. Udalak, plataformatik eginiko eskaerekin bete betean bat egiteaz gain, “hondakinen kudeaketa eredu propioa eta jasangarriagoa eraikitzeke lanean segiko dugu” adierazi zuen Xabier Arregik.

### Batzordea eratu dute

Uztailaren 26ko osoko ohiko bilkuran Usurbilerako hondakinen kudeaketa eredu propioa garatzeko dauden aukerak aztertzea erabaki zuen udalbatzak. Ordutik egiten ari diren lanketaren baitan urrats berri bat eman dute; eredu propioa haur garatzeko azterketa batzordea osatu du Udalak. EHBilduko hiru ordezkariak eta EAJ-ko ordezkari batek osatuko dute. PSE-EEK batzordean parte hartzeari uko egin dio.

### Aldaketa Arau Subsidiarioetan

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren 02 Aldaketa hasieraz onartu zuen udalbatzak. Alegazioak aurkezteko hilaibeteko epea dago. Hiru aldaketa dira hasieraz onartu direnak; Aginagako erriberan, Eizazpi eta Oriagain tarteko bidea eta Zubietako hondakin uren ponpalekua sistema orokorra izendatzea; eta hiri-gintza arauen 53. eta 54. artikuluen egokitzea.

## Larunbat honetan, Jostailu Erabilien Azoka

Erabiltzen ez duzuen jolas edo jostailurik izango duzue etxean. Larunbat honetan, 11:00-13:00 artean frontoian ospatuko den Jostailu Erabilien Azokan izango duzue trukatu eta berrera-biltzeko aukera.

### Jostailu bilketa, ostegun eta ostiralean

Bezperatan, abenduaren 15ean eta 16an bideratuko du gaion bilketa Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak, 17:00-19:00 artean Sutegiko erakustaretoan.



Abenduaren 15ean eta 16an egingo da jostailu-bilketa, 17:00-19:00 artean Sutegiko erakustaretoan.

### Baldintzak

Urtero moduan, gogoan izan,

ekimen honetan parte hartze-ko baldintza hauek bete behar

dira:

■ Jostailuek osorik egon behar dute. Norberari hartzea gustatuko litzaiokeen moduan.

■ Bilketa egunetan jasotzen dena musu-truk emango da. Horren truke, nahi izanez gero, txartel bat jasoko du bakoitzak azoka egunean beste jostailuren batengatik aldatzeko.

■ Azoka egunean jostailuak trukatzeko, 8 urtetik beherakoek, arduradun batekin parte hartu beharko dute.

■ DVD eta antzekoek jatorrizkoak izan beharko dute.

# Euskararen aldeko udal adierazpena

**L**ehen aldiz, herri-erakunde guztiek bat egin duten adierazpena prestatu da, abenduaren 3an ospatu zen Euskararen Egunerako. Tokian tokiko erakundeak bere eremuetan aurkeztu eta onartu dituzte. Usurbilgo Udalak azaroaren 29ko osoko ohiko bilkuran onartu zuen aho batez, “Zer egin dezaket nik euskararen alde?” aldarria daraman adierazpena.

Galdera honi buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu, “guztion ekarpenak baitira baliagarri eta onuragarri euskararen biziberritzerako eta guztion arteko elkarbizitza sendotzeko”. Oraindik orain, gurean bi hizkuntz ofizial izan arren, mozioak gogorarazten duenez, “helburu izaten jarraitzen du, gizartearen oro har, hizkuntzen arteko berdintasun sozialera iristek”. Testuak zehazten du, helburua “euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea” dela.

## Elikagai bankuekin lankidetzaren indartzeko konpromisoa

Iaz baino elikagai kilo gutxiago



Udal adierazpena azaroaren 29ko osoko ohiko bilkuran onartu zen aho batez.

## EUSKARAREN EGUNEAN

### Adierazpenak zehazten du helburua: euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea

bildu dituzte Elikagai Bankuek aurtengo Elikagaien Bilketa Handian. Beherakada horrek ordea, ez du halako kanpainen beharrik ez dagoenik adierazten. Horregatik, elikagai bankuekin lankidetzaren indartzea eskatzen du PSE-EEk aurkeztu eta Usurbilgo Udaleko udalbatzak azaroaren 29ko osoko ohiko bilkuran aho batez onartu zuen mozioak. Halako elkar-

lanak, “beharrezkoak ez ezik, ezinbestekoak dira oraindik ere” eta. Horregatik, “Udalak agente aktiboa izan behar du elkartasunaren sustapenean, bertako merkataritzarekin eta ostalaritzarekin lankidetzan; kontsumorako egokiak izanik, salmentarako baztertzen diren elikagaiak bildu eta aprobetxatzen laguntzeko”. Aho batez onarturiko mozioaren bidez, Udalak elikagai kontsumo arduratsuari loturiko kontzientzia-zio kanpainetan inplikatu eta Elikagaien Bankuarekin elkarlana indartzeko konpromisoa hartzen du, “lankidetzaren hiri gure udalerriko merkataritzara eta ostalaritzara” zabaltzearekin batera.

## Esleipena

Linea 3000 SL enpresa izan da, Usurbilgo Udalaren ahots eta datu eta komunikaziorako sarearen lizentzia deialdira eskaintza aurkeztu duen bakarra. Eskaintza honen alde egitea erabaki zuen udalbatzak gehiengo osoz, azaroaren 29ko osoko ohiko bilkuran. EHBilduk eta PSEk babestu zuten eskaintza. EAJ abstenitu zen.

## Iartza eremuko trazatu berriaren aldaketa

Usurbilgo Udaleko herri bideen inbentarioan jasotako A-107 Iarza eremuko 107.11 exekuzio unitatean kokaturiko herri bidearen trazatu berriaren aldaketa gehiengo osoz onartu zuen udalbatzak, azaroaren 29ko osoko ohiko bilkuran, EHBildu eta PSEren aldeko bozkekin. EAJ abstenitu zen. Alegazioak aurkezteko hilabeteko epea iragarri du Udalak.

# “Borroka feministaren alde hartutako konpromisoa berretsi nahi dugu”

Usurbilgo Udalak bat egin du azaroaren 25ean antolatu ziren Emakumeen Kontrako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunekekin, azaroaren 29ko osoko ohiko bilkuran EHBilduk aurkeztu eta udalbatzak aho batez onartu zuen mozioaren bidez.

“Usurbilgo Udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko jendarte demokratiko bat erakitzeke bide eta tresna nagusia den heinean”.

Bost puntuko testuan gainera, tokiko eragile eta emakumeekin, indarkeria matxistaren adierazpide guztiei aurre egingo dion prebentzio udal- eta lurralde plan integrala garatzea eta eraso matxisten kontrako protokoloa indartzea eskatzen du. Eta egitasmo hauetarako, “beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak” aktibatzea. Foru Aldundiari eta Emakunderi, “emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeke, berdintasun-zuzendaritzak sendotzeko,

epaitegietako genero-unitateak indartzeko eta indarreko lege-ria berraztertzeke konpromisoa hartzeko” galdegiten die.

**Indarkeria ez da murrizten ari**  
Mozioak ohartarazpen argia egiten du. Gaur egun indarkeria honen aurka baliabide eta politika gehiago bideratzen diren ustea izan arren, “indarkeria ez da inondik inora murrizten ari, eta indarrean jarraitzen du gure jendartearen eremu guztietan”. Eta hala jarraituko duela azpimarratzen du mozioak, “bote-re-harremena desorekatu horiei

eustea delako, hain zuzen, indarkeria horren funtsa. Hor-taz, emakume izate hutsagatik indarkeria jasateko aukera txiki-ena dagoen bitartean, gure herrian ez dugu bakea edo normalizazioa lortuko”.

Urte luzeko borrokari esker lortutako berdintasun formula ez dela aski dio mozioak eta “aurrerak jarraitu beharra dugula”, mikro eta makroindarkeriak identifikatuz edota erantzukizuna “edozein eraso sexistak sorrarazteko edo saihesten laguntzeko gai diren gizonen gainean jarritz”.



**2017ko irteerak**

**BIDAIA TALDEAN**  
Irteera Lasarte-Oriatik  
Noaia Bidaiak-ek lagunduta

**AEB-KO MENDEBALDEKO kosta**

**MAIATZA**

**BALTIKOKO hiriburuetatik kruzeroa**

**UZTAILA**

**POLONIA**

**ABUZTUA**

Informazioa eta erreserbak bulegoan.

**NOAIA BIDAIAK**  
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea, 10 - 20160 Lasarte Oria, Gipuzkoa  
T. 943 573 613 | info@noaibidaiak.com  
www.noaibidaiak.com

**B&a**  
Inmogest -

**FINKA ADMINISTRATZAILEA**  
**AHOLKULARITZA ZERBITZUA**  
**INMOBILIARIA**  
**ASEGURUAK**

**943 573 693**  
Baxoalde 4 behea, ORIO

**2017**  
**Ilargiaren**  
**Egutegia**

JAKOBA ERREKONDORAREN  
ESKUTIK  
BAGATZEA,  
FRUITU, ABOROLAK,  
JARDINA ETA BASOA

PELO ZABALAK  
AUKERATUTAKO  
ESATERAK

ALKARTASUNA  
BAGATZEA  
SARRERAK

**17 URTARRILA**

**Jakoba Errekondo**  
**eta Pello Zabalarekin**

Sarrera doakoa izango den arren, izena ematea beharrezkoa da, aretoa bete arte. Izena emateko: 943361114 edota alkartasuna@usurbil.com helbide elektronikoan.

**ARGIA**

**ALKARTASUNA**

ALKARTASUNA KOOPERATIBA eta  
ARGIAren eskutik:

**"ILARGIAREN EGUTEGIA"**ren  
aurkezpena

**Abenduak 17, larunbata**

Potxoenea Kultur etxean,  
goizeko 11:00tan  
**Jakoba Errekondo**  
**eta Pello Zabalarekin**

Sarrera doakoa izango den arren, izena ematea beharrezkoa da, aretoa bete arte. Izena emateko: 943361114 edota alkartasuna@usurbil.com helbide elektronikoan.

**ARGIA**

**ALKARTASUNA**

# Irisgarritasuna bermatzea ezinbestekoa izango da Atsobakarreko kirol azpiegitura berriak babesteko

**L**asarte-Oriako Udalak entrenamendu-zelaia eta atletismo-pista eraiki nahi ditu Urbil mertakal gune ondoko Atsobakar parke eremuan. Udal hartako udalbatzak, gai honi lotuta, uztailearen 12ko osoko bilkuran Udalari eskatzen zitzaion, “lur-sail bat eskain dezala eta tramitazio urbanistikoak erraztu ditzala Atsobakarren entrenamendu-zelai bat eta atletismo-pistak eraikitzeko”. Eremu horretan Lasarteko Udalak bi partzela ditu jabetzan, Usurbilgoak beste bat.

Udalak “ez du eragozpenik ikusten Lasarte-Oriako Udalak jabetzan dituen lurretan kirol-ekipamenduari dagokion prozedura urbanistikoa bideratzeko, betiere prozedura horrek eskatzen dituen formak eta arauak betez gero”.

Lur saila uzteko ordean baldintza argia ezarri du Usurbilgo Udalak “bertara joateko oinezkoen eta bizikleten irisgarritasuna bermatzea”. Baina baldintza hau betetzen ez denez, Lasarteren eskaerari ezezkoa ematen dio mozioak. Bestela arduragabekeriak jokatuko lukeela. Halere, ekipamenduak eraikitzeak elkarlanerako prest agertzen da.

**Udalarentzat onartezina, irisgarritasuna ez bermatzea**  
EHBilduk aurkezturiko mozioa eghiengo osoz onartu zen,



Lasarte-Oriako Udalari lur saila uzteko baldintza argia ezarri du Usurbilgo Udalak: “bertara joateko oinezkoen eta bizikleten irisgarritasuna bermatzea”.

## ATSOBAKAR EREMUAN

**Entrenamendu zelai bat eta atletismo pista eraiki nahi ditu bertan Lasarte-Oriako Udalak**

udal gobernu taldeko kideen aldeko bozkekin. PSE abstentitu eta EAJ aurka agertu zen. Kirol azpiegitura hauetara heltzeko oinezkoen eta bizikleten irisgarritasuna bermatzea ez zaio nahikoa arrazoi iruditzen EAJ-ri, Lasarteko Udalak eginiko eskaerari ezezkoa emateko. “Onura gehiago ekarriko dute, kirol azpiegiturok usurbildarrentzat ere onuragarri izan daitezke”, zioen Josune Urkola bozeramaileak. Are gehiago, jeltzaleen esanetan, Usurbilgo instalakuntzetan espazio falta dagoenean.

PSE-tik Usurbilgo Udalak es-

kutzen duen bidegorria eraikitzea ez dagoela Lasartekoaren esku zioen Fermin Oruek, eta ezingo dela eraiki egun bate-tik bestera. Horren aurrean, Udalak lagapen hau egitea baimentzen ez badu, bidegorri hori egin artean behintzat, “usurbildarrek galduko dute” zioen.

Adierazpenon aurrean, mozioan adierazitakoa berretsi zuen udal gobernu taldeak. Batetik, ez dutela zalantzan edo auzitan jartzen kirol azpiegiturok herritarren interesekoak eta onuragarriak izan daitezkeenik. Baina ezinbestekotzat jotzen dute, azpiegitura hauetara heltzeko dagoen arazoa konpontzea. Onartezintzat eta arduragabetzat jotzen dute, bertara oinez edo bizikleta gainera joateko modurik ez bermatzea, “gure bizia arriskuan jarritz”, eta Lasarteko Udalaren eskaerari baiezkkoa ematea.

## Bidegorria, “premiazkoa”

Egiten ari diren eskaera, alegia ibilgailu motordunen orde, oinezko eta bizikletentzako bidea lehenestea “urgentziatzkoa, premiazkoa” dela irizten diote. Aurreikusia dago gainera Atsobakar Usurbilekin lotuko lukeen bidegorria. Xabier Arregi alkateak osoko bilkuran bertan adierazi zuenez, legegintzaldi abiatu zenetik hasi ziren arazo hau konpontzeko ahalginean. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eginiko bileretan, arazo honi irtenbide bideragarriena emateko aurreproiektua eta konpromisoa eskatua dute.

Aldiz, Diputazioari gai honetan aurrerapausoak emateko determinazioarik ez diotela ikusten adierazi zuen alkateak azken osoko bilkuran. Azpiegiturarako dirurik ez, eta etorkizunerako konpromisorik ez duela agertu gaineratu zuen. Eta honenbestez, aipatu moduan, arduragabekeriak jokatzea litzatekeela, Lasarteko Udalak eginiko eskaerari baiezkkoa ematea.

Halere, eta mozioko hirugarren puntuan jaso bezala, gai honi konponbidea aurkitzeko, Udalak elkarlanean aritzeko prestasuna izaten segitzen duela nabarmentzen du alkateak.

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea

eguneko menuak  
ogitarztekoak  
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.eus



" Hemen duzu 2017ko errefusaren egutegia.  
Hala ere, datorren egunetan zure postontzian  
2017-2018rako egutegia jasoko duzu!"

**ERREFUSAREN BILKETAREN EGUTEGIA 2017-18**  
2017-2018 CALENDARIO DE RECOGIDA DE RECHAZO



Usurbilgo  
Udaia



2017  **Usurbil** 900 776 776  
osasuna atez ate

**URTARRILA ENERO**

|                             |                             |    |    |    |    |           |  |
|-----------------------------|-----------------------------|----|----|----|----|-----------|--|
|                             |                             |    |    |    |    | <b>1</b>  |  |
| 2                           | 3                           | 4  | 5  | 6  | 7  | 8         |  |
| 9                           | 10                          | 11 | 12 | 13 | 14 | <b>15</b> |  |
| 16                          | 17                          | 18 | 19 | 20 | 21 | 22        |  |
| <sup>22</sup> <sub>30</sub> | <sup>24</sup> <sub>31</sub> | 25 | 26 | 27 | 28 | <b>29</b> |  |

**OTSAILA FEBRERO**

|    |    |    |    |    |    |           |  |
|----|----|----|----|----|----|-----------|--|
|    |    | 1  | 2  | 3  | 4  | 5         |  |
| 6  | 7  | 8  | 9  | 10 | 11 | <b>12</b> |  |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19        |  |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | <b>26</b> |  |
| 27 | 28 |    |    |    |    |           |  |

**MARTXOA MARZO**

|    |    |    |    |    |    |           |  |
|----|----|----|----|----|----|-----------|--|
|    |    | 1  | 2  | 3  | 4  | 5         |  |
| 6  | 7  | 8  | 9  | 10 | 11 | <b>12</b> |  |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19        |  |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | <b>26</b> |  |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |    |           |  |

**APIRILA ABRIL**

|    |    |    |    |    |    |           |   |
|----|----|----|----|----|----|-----------|---|
|    |    |    |    |    |    | 1         | 2 |
| 3  | 4  | 5  | 6  | 7  | 8  | <b>9</b>  |   |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16        |   |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | <b>23</b> |   |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30        |   |

**MAIATZA MAYO**

|    |    |    |    |    |    |           |  |
|----|----|----|----|----|----|-----------|--|
| 1  | 2  | 3  | 4  | 5  | 6  | <b>7</b>  |  |
| 8  | 9  | 10 | 11 | 12 | 13 | 14        |  |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | <b>21</b> |  |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28        |  |
| 29 | 30 | 31 |    |    |    |           |  |

**EKAINA JUNIO**

|    |    |    |    |    |    |           |  |
|----|----|----|----|----|----|-----------|--|
|    |    |    | 1  | 2  | 3  | <b>4</b>  |  |
| 5  | 6  | 7  | 8  | 9  | 10 | 11        |  |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | <b>18</b> |  |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25        |  |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |    |           |  |

**UZTAILA JULIO**

|                             |    |    |    |    |    |           |          |
|-----------------------------|----|----|----|----|----|-----------|----------|
|                             |    |    |    |    |    | 1         | <b>2</b> |
| 3                           | 4  | 5  | 6  | 7  | 8  | 9         |          |
| 10                          | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | <b>16</b> |          |
| 17                          | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23        |          |
| <sup>24</sup> <sub>31</sub> | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | <b>30</b> |          |

**ABUZTUA AGOSTO**

|    |    |    |    |    |    |           |  |
|----|----|----|----|----|----|-----------|--|
|    | 1  | 2  | 3  | 4  | 5  | 6         |  |
| 7  | 8  | 9  | 10 | 11 | 12 | <b>13</b> |  |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20        |  |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | <b>27</b> |  |
| 28 | 29 | 30 | 31 |    |    |           |  |

**IRAILA SEPTIEMBRE**

|    |    |    |    |    |    |           |  |
|----|----|----|----|----|----|-----------|--|
|    |    |    | 1  | 2  | 3  |           |  |
| 4  | 5  | 6  | 7  | 8  | 9  | <b>10</b> |  |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17        |  |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | <b>24</b> |  |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |           |  |

**URRIA OCTUBRE**

|                             |                             |    |    |    |    |           |  |
|-----------------------------|-----------------------------|----|----|----|----|-----------|--|
|                             |                             |    |    |    |    | 1         |  |
| 2                           | 3                           | 4  | 5  | 6  | 7  | <b>8</b>  |  |
| 9                           | 10                          | 11 | 12 | 13 | 14 | 15        |  |
| 16                          | 17                          | 18 | 19 | 20 | 21 | <b>22</b> |  |
| <sup>23</sup> <sub>30</sub> | <sup>24</sup> <sub>31</sub> | 25 | 26 | 27 | 28 | 29        |  |

**AZAROA NOVIEMBRE**

|    |    |    |    |    |          |           |  |
|----|----|----|----|----|----------|-----------|--|
|    | 1  | 2  | 3  | 4  | <b>5</b> |           |  |
| 6  | 7  | 8  | 9  | 10 | 11       | 12        |  |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18       | <b>19</b> |  |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25       | 26        |  |
| 27 | 28 | 29 | 30 |    |          |           |  |

**ABENDUA DICIEMBRE**

|    |    |    |    |    |          |           |  |
|----|----|----|----|----|----------|-----------|--|
|    |    |    | 1  | 2  | <b>3</b> |           |  |
| 4  | 5  | 6  | 7  | 8  | 9        | 10        |  |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16       | <b>17</b> |  |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23       | 24        |  |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30       | <b>31</b> |  |



# Eskualdean ekonomia eta enplegua suspertzeko hitzarmen berria

Gipuzkoan Garapen Agentziarik ez duen eskualde bakarra dugu gurea, Beterri Buruntza. Gabezia honi aurre egiten lagundu, etorkizunean halako agentzia bat sortzea ahalbidetu eta Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalerriak proiektu horretara gerturatzeko, jorratu beharreko bide hori egiten lagunduko duen “oinarri sendo bat jarri dugu”. Hala zioen Alaitz Aizpurua zinegotziak, azaroaren 29an egin zen osoko ohiko bilkuran.

Gaurkoz, eskualdeak mahai gainean duena, sei udalerrion artean landu duten, toki-garapenaren, sustapen ekonomikoaren eta enpleguaren alorreko lankidetzaren hitzarmena da. Aurreko legegintzaldi amaierara arte, 2015eko maiatzera arte indarrean egon zena ordezkatuko du. Ordutik hona, urte eta erdi honetan, hitzarmen hura berriro eta indartzeko lanetan aritu dira sei udalerriak.



Gipuzkoan Garapen Agentziarik ez duen eskualde bakarra da gurea. Garapen Agentzia batekin, “gutxitu egingo litzateke administrazioako burokrazia, hobetu egin litezke giza baliabideak eta bitarteko materialak eta, halaber, ekintza bateratu bat bermatuko litzateke”.

## GARAPEN AGENTZIAZ

**“Eskualdeko lankidetzaren bitartez hobeto aprobetxatuko lirateke udal bakoitzak dituen ahalmen eta baliabideak”**

Udalbatzak aho batez babestu zuten, lau urterako sinatuko den lankidetzaren hitzarmen hau.

Eskualdeko udaletako talde politiko guztien eta desberdinen artean gutxieneko ados-

tasun bat badela zioen udal gobernu taldeak, etorkizunean Garapen Agentziaren beharra badela adierazteari dagokionean. Udalok “bat datoz gaur egun ez dutela baliabide propio eta egokirik Toki Garapenaren, Sustapen Ekonomikoaren eta Enpleguaren alorrean eskualde mailako proiektuak koordinatzeko eta eraginkortasunez elkarlanean aritzeko”. Eta udal onuragarria litzateke Garapen Agentzia bat izatea; “eskualdeko koordinazioaren eta lankidetzaren bitartez hobeto aprobetxatuko

lirateke udal bakoitzak dituen ahalmen eta baliabideak, gutxitu egingo litzateke administrazioako burokrazia, hobetu egin litezke giza baliabideak eta bitarteko materialak eta, halaber, ekintza bateratu bat bermatuko litzateke”.

## Ordezkaritza

Hitzarmena sinatu ostean, batzorde kudeatzaile bat eratuko da, “udal bakoitzeko Udal Batzarrak izendatutako bi ordezkari politikok osatuta”. Gobernu taldetik Xabier Arregi alkatea eta Alaitz Aizpurua zinegotzia proposatu zituen EH-Bilduk, azken osoko bilkuran. EAJ-ko bozeramaileak haiek ere ordezkari izatea proposatu zuen. Baina batzorde horretan duten erantzukizuna kontuan izanda, “errealitateari eta egoerari egokitzen zaion proposamena” aurkeztu zutela adierazi zuen Aizpurua. Bozketako tartean EHBilduko bi ordezkariak izendatzearen aurka bozkatu zuen EAJ-k. PSE eta EHBilduk alde.

## Hitzarmenaren nondik norakoak

### Helburuak:

- Eremuko eskualdeko diagnosi bat egitea.
- Diagnosi hau abiapuntu gisa hartuta, enplegu eta sustapen ekonomikorako udaleko/eskualdeko planak garatzea.
- Proiektuen kudeaketan eta horien zuzendaritza politikoan arintasuna bermatzea.
- Lankidetzaren aritzaren egokitasuna aztertzea, erabakitzeke dagoen forma juridikoa izango duen egitura sortuz.

### Sustatuko diren proiektuak:

“Tokiko enplegu planak”, “ekintzaile zerbitzua”, “enpresa zerbitzua”, “sektoreetako foroak” eta Batzorde Kudeatzailearen programa berriak.

### Baliatuko duten eskualde

**izendapena:** “Beterri-Buruntza”.

### Antolaketa egitura:

3 organo izango ditu:

- Batzorde kudeatzailea: udal bakoitzeko bi ordezkari politikoez osatuko da. Eskualdearen toki-garapenerako estrategia zehaztea eta urteko kudeaketa-planak onetsi eta horien jarraipena egingo du. Erabakiak ordezkariei bi herenek onartu beharko dituzte.
- Administrazio Koordinazioarako Batzordea: udal sustapen ekonomiko eta enplegu, kontu-hartzailetza eta udal idazkaritza eremuko langileez osatuko da. Urteko proiektu, programa eta kudeaketa-planak koordinatu eta administrazio eta ekonomia

alorrean horien jarraipena egingo diote.

- Koordinazio Teknikorako Batzordea: udal teknikariek osatuko da. Urteko proiektu, programa eta kudeaketa-planak diseinatu, kudeatu eta koordinatu dituzte.

### Ordezkaritza eta iraupena:

Andoain izango da eskualdeko udalen ordezkari eta lankidetzaren hau koordinatuko duena. Hitzarmena 4 urtez sinatuko dute, beste lau urtez luzatu ahal izango da.

### Finantzaketa:

-Udalek: Batzorde Kudeatzaileak adostutako aurrekontuan, dagokion kuota ordaindu beharko dute urteko lehen hiruhilekoan. Foru-fondoaren banaketaren

gaineko proportzioa baliatuko da erreferentzia gisa. Usurbilek %8,76ko ordezkari izango du.

- Beste erakundeek diru ekarpenak.

-2017ko aurrekontua:

Gastua guztira: 1.290.976. Diru-sarrerak: 603.390. Udal ekarpena: 687.586. Usurbilgo ekarpena, 68.399.

### Hitzarmena kasuotan baliogabetuko da:

- Garapen Agentzia bat eratzen denean.
- Batzorde Kudeatzaileak aho batez hala erabakitakoan.
- Udal batek bere kontutik hitzarmenetik atera nahi badu, “aurrez bere gain hartutako konpromisoak kitatu beharko ditu”.

# gurearen zaporea



**Eusko Labelen marka ziurtatuko kalitate goreneko eta zapore bikaineko produktuak eskaintzen dizkizu.**

Gure baserritarrek eta arrantzaleek gure lurraldeko onena ateratzen dute zuretzat. Euskadin ekoiztako, eraldatutako eta/edo landutako nekazaritzako elikagaien produktuak.

Eusko Label erosita kalitate gorenekoa eskuratzeaz gain, gure ekonomia, gure lehen sektorea, gure paisaia eta gure kultura iraunarazten ere laguntzen duzu.

Gureak ematen duen gozamena.









**Klik! batean**

## **Guk lan eta hik jai**

Bizi Kalea. Kalea bizitzeko baita. Hurbilagokoei esker, jai ederraz gozatzeko aukera dugu hilean behin. Urtarrilaren 15ean izango da hurrena. Hori bai, batzuk gozatzeko, beste batzuk gogotik lan egin behar izaten dute. Umore onez bada, gaitzerdi!

Argazkia: Ion Markel



# Kaleragunea zabalik

Euskal preso, iheslari eta deportatu politikoen aldeko konpromiso, elkar-tasun eta borroka gunea izango den Kaleragunea inauguratu zuten larunbatean. Hilabetez, presoan alde eta presoek begira egongo den plazako karpagunea. Ekitaldi jendetsua izan zen. Larunbatetik geroztik urtarrilaren 8ra arte, hilabetezko itxialdia egingo dute ehunka preso ohiek, baita deialdira batzen diren beste hainbat eragile edota herritarrek. “Euskal preso politikoen Kolektiboak abiatzear daukan eztabaida sozializatzeko esparrua izan nahi du, eta, horrekin batera, gatazkaren ondorioen konponbidearen arloko behar politiko eta humanoen inguruko mobilizazioa sustatzea du helburu”, adierazi zuten abenduaren 10eko ekitaldian.

Itxialdiaren bidez, “mezu argi bat zabaldu nahi dugu: preso ohiok ez gara etxean geldituko, kalera irtengo gara borrokan jarraituzera”. Urtarrilaren 8ra arte, hilabetezko itxialdia egingo dute ehunka preso ohiek

Usurbilen abian jarri den



Euskal preso politikoen kolektiboak abiatzear daukan eztabaida sozializatzeko esparrua izan nahi du Kaleraguneak.

## KALERAGUNEAK

**Itxialdiaren bidez, “mezu argi bat zabaldu nahi dugu: preso ohiak ez gara etxean geldituko, kalera irtengo gara borrokan jarraituzera”. Urtarrilaren 8ra arte, hilabetezko itxialdia egingo dute ehunka preso ohiek**

“Kalera Kalera! Bakea eta Askatasuna irabaztea!” aldarrirapean hamaika ekimen ospatuko dira asteotan. Goiburuari

dagokionez, aurkezpen ekitaldian zera zioten deitzaileek; “Bakea eta askatasuna geure egiten ditugun bi kontzeptu dira, zehaztasun handiz adierazten dutelako zein diren hurrengo fase politikoaren lerro nagusiak marrazten ari diren une honetan lortu beharreko helburu nagusiak. Bakea egon dadin, askatasunean sakondu behar da. Batez ere, euskal preso politikoen askatasunean eta erabakitze askatasunean. Ekimenaren goiburua nagusiaren osagarri gisa, Euskal Herriko hainbat belaunaldiren imajinario kolektiboan

sakonki erroturik dauden bi elementu sinboliko erabiliko ditugu: sugarra eta Kalera Kalera abesti herrikoia. Sugararak amnistiaren eta gure herraren askatasunaren aldeko borroka irudikatzen du; Kalera Kalera kantak, berriz, ziklo historiko oso bateko kontsigna jasotzen du. Bi sinbolismo horiek kalean etengabe egotea nahi dugu, indartsu, haien esanahia bazter guztietara zabalduz”.

## Itxialdian da jada

### lehen taldea

Irekiera ekitaldian, “Kalera, kalera” abesti ezaguna kantatu zuten. Abestia udazken honetan gure artetik joan den Imanol Urbietaren musikari ezagunak eta Josu Txapartegi “Txapas”ek sortu zuten. Txapartegik berak azaldu zituen xehetasunak frontoian, denak abesten hasi aurretik. Urbietaren argazki batekin Imanol oroitu nahi izan zuten. “Kalera, Kalera!” ekimenaren sinbolo izango da abesti hau eta baita, kandelekin lehenik eta karpagunean gero piztu zuten sugarra. Karpagunera gerturatu ziren eta han dira jada, itxialdian parte hartuko duen lehen taldeko kideak.

## Asteburu honetan ekitaldi ugari egingo dira bertan

### Abenduak 15, osteguna

■ 18:00 Hitzaldia Potxoenean, Miren Illarreta eta Maritxu Paulus Basurko abokatuekin: “Estatu Frantseseko presoan Erradiografia”.

### Abenduak 16, ostirala

■ “Presoen gaia erreferentzia duten abeslari desberdinen emanaldia”.

### Abenduak 17, larunbata

■ 10:30ean hasita egun osoz,

presoen bisitarien arteko txapelketa erraldoia. Preso bakoitzeko, bikote bat.

### Abenduak 18, igandea

■ 11:30 Oriaren jaitsiera, Aginagako Mapiletik Oriara.

■ 12:00 Ekitaldia Orioko Herriko plazan eta mokadu txiki bat.

■ 18:00 Dj Olarius.

### Abenduak 19-urtarrilak 7

■ 12:00-14:00 / 16:00-20:00

Erakusketa Sutegiko aretoan: “Presoak kalera, presoan arte-lanak kalera”.

### Abenduak 19, astelehena

■ 18:30 Solasaldia: “Fichier Antiterroriste “FIJAIT”.

Hizlariak: Clara Rouget eta Maritxu Paulus abokatuak.

### Abenduak 20, asteartea

■ 18:00 “Porrotxen bisita. Umeek presoentzako marrazkiak egingo dituzte eta... “Sor-

presa”.

### Abenduak 22, osteguna

■ 18:30-20:30 Bertsolariak eta triki-poteoa Usurbilgo trikitilariekin.

### Abenduak 23, ostirala

■ Presoen alde kantuan. Abeslarien emanaldia.

### Abenduak 25, igandea

■ Egunean zehar, “Ez dauden mahaia”.



# Adostasunaren aldeko merienda-bilkura

**M**erienda-bilkura larunbatean izango da, abenduaren 17an, arratsaldeko 18:00etan hasita Donostiako Gipuzkoa plazan. GuraSOSeK iragarri duenez, haurrentzako jolasak, musika eta gaztain erreak izango dira. GuraSOSeK gabon txartelak ere banatuko dituzte bertan. Honez gain, Guraso taldeak abian dituen ekinbide juridikoen gaineko nobedadeen berri eman-goto dute.

Hitzordu honetan parte hartzeko gonbita luzatzen die GuraSOSeK familiei eta herritarrei. "Gurasoak gara, eta guraso bezala, «pelmak» gara. Eta gure alaba eta semeengatik ez dugu etsiko. Guretzat beraiek dira garrantzitsuena, beraiek dira etorkizuna. Adostasunaren bidean sinesten dugu, eta beste behin hautu horren aldeko aldarrikapena egingo dugu larunbatean. Akordio bat lortzeko oraindik garaiz gaudela esateko joango gara, informazio gehiago, eztabaida gehiago eta adostasuna nahi ditugula



Larunbat honetan 18:00etan Donostiako Gipuzkoa Plazan, GuraSOSeK deituta.

## GURASOS

**Gaztainak, musika, jolasak... Larunbat honetan, arratsaldeko 18:00etan batuko dira Donostiako Gipuzkoa plazan**

esateko joango gara. Guztiok merezi dugulako. Gipuzkoak merezi duelako. Bat egin dezagun guztiok giro alaian!", dio GuraSOSeK.

## #Baietz200000 kanpaina

Euskal Telebistak GuraSOSeK azaroaren 26an Donostian antolatatu zuen manifestazioaren

berri ez zuen eman. Honen aurrean, egun gutxira bideoa kaleratu zuen guraso taldeak. Mobilizazioari buruzko berria eman zuten ikus-entzunezko lan honen bidez, ETB-ko albistegien gunean egongo balira bezala, atzean aipatu telebista kateko albistegien platoaren irudia zutela.

Egun horretan, ETB-k izandako audientzia maila gainditu nahi zuten eta honenbestez, herritarroi bideoa ikustera animatzen gaituzte. Ekimen hau izaten ari den harrerarekin pozik dira GuraSOS taldekoak.

"Izugarritzko elkartasun ola-

tua izaten ari da. Une honetan 88.500 mila bisita baino gehiago dituzte bideoek (51.000tik gora euskarazkoak), izugarria da hori. Kanpaina parte hartu eta parte hartzen ari diren guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu elkarrekin batera egorari buelta eman diogulako. Whatsapp bidez, sare sozialak astinduz eta ingurukoei erakutsiz azaroaren 26ko manifestazioaren albistea lau haizetara zabaltzen eta informazio eskubidea babesten ari gara. Bejondeigula!", diote guraso taldeak.

## Laguntzarako deia

Hondakinen afera konpontzeko bide-orria landu eta aurkeztu du GuraSOSeK. Orain, bide-orri hori babesteko gizarte eragile eta politikoen atxikimenduak biltzen ari dira. Kanpaina honetan laguntzeko deia egin dute. "Herriz herri atxikimenduak lortzeko laguntza eskatzen du" GuraSOSeK. Laguntzarako dituzuen bideen berri, gurasos.org web orrialdean jaso dezakezue.



## 1936. urtean estatu kolpearen ondorioz errepresaliatuak izan ziren Urola Ferrokarrileko langileei omenaldia

Gipuzkoako Foru Aldundia, 36ko estatu kolpearen ondorioz 1936 eta 1937 bitartean errepresaliatuak izan ziren Zumarraga-Zumaia bitarteko Urola Ferrokarrileko langile ohien edo eta senitartekoen bila dabil 2016ko abenduaren 20an egingo zaien gorazarre ekitaldirako. Jarri mesedez harremanetan **943 112 290** telefono zenbakian.

# Hurbilago, kale giroa biziagotzen

**J**an edana, poniak, haurrentzako tailerrak, ohi baino sari banaketa handiagoa... Kale giroa are gehiago biziagotu zuten Hurbilago Elkarteko tabernariak aurreko igandean Artzabalen ospatu zuten hitzorduan.

Hitzordua, udazken honetan bertan antolatu duten argazki lehiaketako sariak banatzeko baliatu zuten. Baita aurreko edizioan bezala, jatekoa eskuratzeko txartelak erosi zituztenen artean, tabernarien hainbat opari zozketatzeko ere. Honatx zerbaki eta herritar sarituen berri:

## Argazki lehiaketako sarituak

- 16 urtetik beherako lehiakideen artean: Maddi Olaetxea.
- 16 urtetik gorako lehiakideen artean: Manu Barreiro.



Maddi Olaetxea eta Manu Barreiro nagusitu dira Hurbilagok antolatu duen argazki lehiaketan.



## Aurreko igandeko

### Bizi Kaleako zozketak

- 2 Belela Mateus, Aitzagaren eskutik: 195.
- 2 lagunentzako menua, Artzabalen eskutik: 20.
- Bi urdaiazpiko zorro, Bordaxoren eskutik: 425.

- Bodega Mitarte kaxa bat 3 botilekin: 171.
- 2 erreserba botila eta bodegara bisita, Txiribogaren eskutik: 438.
- 2 botila Cava Brut, Txirritaren eskutik: 181.
- Bruñoko mariskada: 234.
- Arrospide etxekoan 2 poto

ontto: 500.

- Tapetea eta kartak, Txirinboloren eskutik: 178.
- Saizar etxekoan sagardo kaxa, 4 botilekin: 24.
- 2 kontsumizio Guria tabernan: 161.
- 2 kontsumizio Txapeldun tabernan: 179.

## Abenduaren 19an, Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldearen batzarra

Datorren astelehenerako, abenduaren 19rako deitu dute bilkura arratsaldeko 19:00etan, Sutegiko auditorioan.

Nagusiki bi gai jorrazteko deitu dute hitzordua; batetik, San Marko Mankomunitatetik irteteko dagoen aukeraren inguruko informazioa eskainiko da. Bestetik, urriaren 21etik 23ra Usurbilen eta Zubietan erraustegiari buruz eginiko galdeketa herriarrek emandako iritzia ez dute herri borondatearen adierazpen hutsean geratzerik nahi. Usurbildar eta zubietarrek bozken bidez



Sutegin elkartuko dira, arratsaldeko 19:00etan.

duela bi hilabete erraustegiarri emandako ezezko borobila nola gauzatu erabakitzeko,

horri buruzko iritzia eta ekarpenak ere bildu nahi dira hilaren 19ko batzarrean.

## Zumartekoak, batetik bestera

Pasa den asteburuan Zumarte Musika Eskolako Intza Apeztexea eta Gorka Arroyok zilarrezko domina lortu zuten Arrasateko Akordeoi Lehiaketan. Zorionak!

Bestetik, Zumarte Abesbatzak Gautena gure erara egitasmoan hartu zuen parte abenduaren 4an, Kursaaletan. Bertakoa da argazkia.



Abenduaren 4an, Kursaaletan arituz ziren kantuan.



# ABENDUAN



USURBILGO TXANPONAREKIN ORDAINDUTA,

## % 10 MERKEAGO

### NON ESKURATU Txanponak?

\*Iván Pérez Argazki Estudioan

\*Santueneko Esnaola janari dendan

Txanpon kopurua: bezero bakoitzak gehienez  
10 txanpon eskuratu ahal izango ditu.



# Usurbil FT, 40. urteurrenean gogo biziz





# Ostiral honetan, Gure Esku Dagoren ekitaldia

ELKARTE ERAGILEAREN IZENA, LOGOA ETA MANIFESTUA AURKEZTUKO DITUZTE FRONTOIAN

Aurreko aldizkarian iragarri genuen bezala, erabakitze-eskubideari buruzko galdeketa maiatzaren 7an egingo da. Prozesu osoa bideratzeko, elkarte bat osatu behar da orain. Talde eragile horren izena, logoa eta manifestua ostiral honetan aurkeztuko dute jendaurrean. Arratsaldeko 19:30ean frontoian egingo den ekitaldira joateko gonbitea luzatu du Usurbilgo Gure Esku Dago-k.

2017a galdeketen urtea izango da. Hernanin martxoaren 19an egingo dute. Lasarte-Orian eta Usurbilen, aldiz, maiatzaren 7an. Eta horrela Euskal Herriko txoko askotan.

Data ezarri dute. Lehen urratsa hori izan da. Baina pauso gehiago eman behar ko dira datozen egunetan, eta jendearen partehartzea funtsezkoa izango da. Usurbilgo Gure Esku Dago lan taldetik aditzera eman digutenez, galdeketa prozesua kudeatuko duen elkarte sortu behar da lehenbailehen.

“Talde horri forma juridiko bat eman behar zaio. Elkarte berri horrek izen propioa izango du eta ostiraleko ekitaldian jakinaraziko dira elkartearen izena eta logoa”, Gure Esku Dagoko kideek jakinarazi digutenez. Izena eta logoarekin batera, prozesu guztiaren oi-



Azaroaren 26ko batzarrean adostu zuten data: maiatzaren 7an egingo da herri galdeketa. Ostiral honetan erabakitze eskubideari buruzko galdeketa kudeatuko duen elkartearen izena emango dute aditzera. 19:30ean frontoian.

## GURE ESKU DAGO

**Galdeketa ahalik eta babes handiena izan dezan, “sinadura biltzeta bat abiatuko dugu. Honek galdeketa zilegitasun soziala emango lioke”**

narri izango den manifestu bat ere aurkeztuko dute.

## Sinadura biltzeta

Manifestu horrekiko atxikimendu zabal bat ziurtatu nahi dute. Ahalik eta babes handiena jaso asmoz, “sinadura

biltzeta bat abiatuko dugu. Honek galdeketa zilegitasun soziala emango lioke”. Gure Esku Dago-tik esan digutenez, urtarila bitarteko helburu nagusia manifestu horren aldeko ahalik eta sinadura gehien biltzea izango da. Datozen asteetan, beraz, sinadurak biltzeko mahaiak ipiniko dira herrian.

## Galdera, adostua

Erabakitze eskubidearen aldeko manifestua sustatu ondoren, galdeketa egunean egingo den galdera adosteko epea zabalduko da. Urtarriletik martxora bitarteko epean egingo

da hori. Lanketa baten emaitza izango dela adierazi digute.

## Maiatzaren 7an, bozka emateko aukera

“Eta azken bi hilabeteetan, erabakiaren fasea zabalduko genuke”. Galdeketa bera bideratzea. Maiatzaren 7an amaituko litzateke prozesua, Usurbilen egingo den herri galdeketaekin.

Hori da helmuga. Baina lehen hitzordua ostiral honetakoa izango da. Arratsaldeko 19:30ean frontoian egingo den ekitaldian, elkartearen izena, logotipoa eta manifestua jakinaraziko dituzte.

## “Lan-talde zabal bat osatu nahi dugu”

Elkarte berria laster jarriko da martxan. Baina Gure Esku Dago dinamika aldea hasi zen. Baita Usurbilen ere. Erronka berriak ahalgin handiagoak eskatuko ditu. Eta jendearen partehartzea ezinbestekoa izango da.

“Lan-talde zabal bat osatu nahi dugu”. Bere zeregina haxe litzateke: “galdeketa harira hartu behar diren erabaki guztiak bideratzea”. Talde sustatzaile bat ere osatuko dute, “lan-talde zabalak hartzen dituen erabaki horiek eguneroko

dinamika kudeatu ditzan”.

## Ostegunetan batzen dira, Potxoenean

Komunikazio eta kale-ekimenez arduratuko litzatekeen beste talde bat ere osatuko da. Hortaz, “lan-talde ezber-

dinetan partehartzera animatu nahi dugu jendea”. Hasiera batean behintzat, ostegunero ari dira biltzen. Potxoenean elkartzen dira, arratsaldeko 18:30ean. Batean zein bestean lagundu nahi duenak beraz, hortxe du aukera.

# Herritar ekoizleak, San Tomas Festaren erdigunean

**S**an Tomas Egunari aurre hartuko diogu ohi denez, igande honetarako, abenduaren 18rako NOAUA! Kultur Elkarteak beste zenbait herri eragilerekin elkarlanean antolatu duen festarekin. Egitarau oparoa osatu dugu, eta beste behin, protagonistak herritar ekoizleak izango dira. Ez ahaztu baserritar jantziekin apain-apain plazara gerturatzeaz!



Zer jan, zer edan, zer erosi eta zer ikusi ugari izango da igande honetako San Tomas festan.

## Abenduak 18, igandea

- 11:00 Irekiera. Ixabel Agirresarobe herritarra ariko da jaialdiko aurkezle lanetan. Goizean zehar, postuetan ostarxoa egiteko aukera.
- 12:00 Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria: "Amona Tomaxak Donostiara joan behar izan zuenean zer gertatu zitzaion".
- 12:30 Erraldoi eta Buruhandien kalejira Zumarteko txistulariekin, udaletxe aurretik abiatuta. Frontoian amaituko da kalejira. Ondoren, Orberdi Dantza Taldearen saioa.
- 13:15ak aldera: Nafartarrak taldeak Zuberoako ikastolak

laguntzeko antolatu duen elkartasun kanpainaren amaierako ekitaldia.

- Fotokolean parte hartu dutenen arteko otarren zozketa.
- Babarrun eta sagardo txapelketetako sari banaketa: Lehen saria: 150 euro eta txapela. Bigarren saria: 90 euro eta kopa. Hirugarren saria: 50 euro.

## Postuak

- NOAUA! Kultur Elkartea: bazkidetza egiteko aukera, NOAUA!ko produktuak eskuratzeko aukera (tartean kantu-liburuxka berria, 5 euroren truke).

- NOAUA!ren fotokola: atera argazki bat euskararen leihoan. Trukean, Nafartarrak taldekoen Zuberoako produktuen otarra edota Errigoraren otarra irabazteko zozketan parte hartuko duzue.

- Etumeta AEK euskaltegia: datorren udaberriari ospatuko den 20. Korrikaren materiala salgai jarriko dute.

- Nafartarrak taldea: Zuberoako ikastolak laguntzeko azken asteetan bideratu duten elkartasun kanpainako otarrak eskuratu ahaliko dituzte aurrez eskatu dituztenek. Eskaera egin ez dutenentzako ere unean

bertan saskiak erosteko aukera izango da.

- Talogileak: presoen aldeko laguntza biltzen duen taldea, talo goxo askoak prestatzen eta saltzen ariko da.

- Gaztaingileak: oraingoan ere ez du hutsik egingo, gaztainak prestatzeaz arduratu ohi den herriko koadrila ezagunak.

- Herriko ekoizleen postua: Aitziber Elortzaren arrautzak eta postreak salgai; Txerrizaleok Elkarteak txerrikiak salgai, eta puzgarria.

- Udarregi Ikastolako ikasleen postua: ikasturte amaierako bidaiarako laguntza biltzeko, ikasleek prestatutako postreak salgai izango dituzte.

- Azokako lehiaketara aurkezturiko babarruna ikusi eta sagardoa dastatu ahal izango duzue, Sagardo Egunaren Lagunak taldekoen eskutik.

## Oharra

- Baserritarrez jantzita etorri!
- Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkartea, herri eragile gehiagorekin elkarlanean.

# Ohiturari jarraituz, kantuan egingo zaie harrera Eguberriei

Ikasleak lehenik, herritarrak gero, gabon kantak abesteko hitzordu ugari begibistan:

## Abenduak 23, ostirala

### Zubietako Eskolan:

- 10:30 Maridomingiren etorrera. Goizean gela bakoitzak jasoko du gutuna, 10:30ean soinu berezi baten bidez elkartuko gara. Kanta. Kontakizuna. Jolasak.
- 12:00 Gabon kantak senidee-

kin Errebote plazan. Ondoren, Guraso Elkarteak eskainitako hamaiketako Zubietako plazan.

### Udarregi Ikastolan:

- 09:30-10:50 LH eta DBH-koen gabon kanta saioa.
- 11:25 HH-ko haurren gabonetako kantu saioa.
- 17:00 Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Haur Eskolako 2-3 urteko geletara. Ondoren, jolastokian, haur, hezi-

tzaile, guraso eta herritarrak elkartu eta gabon kantak abestuz kalejira frontoira.

- 18:15ak aldera, frontoira iristea. Haur Eskolakoentzako askaria, musikak girotua.

## Abenduak 24, larunbata

- 09:00 Aginagan, eliza paretik. Antolatzailea: Aginagako parroikia.
- 17:00 Kaxkoan: Parrokia. Antolatzailea: Parrokia.

- 17:30 Kaxkoan: frontoitik, euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko Olentzero eta Mari Domingirekin. Antolatzaileak: Usurbilen Nahi Ditugu, Kantu Taldea.

- 18:00 Santuenean: Olentzeroekin kalejira auzo elkartetik.
- 19:00 Kaxkoan: Olentzero taldeen amaiera bateratua frontoian.

- Oharra: Behin behineko egitaraua da hau.



**ARTZABAL**  
BASERRRIA · JATETXEA

EGUNEKO MENUA KARTA  
PLATER KONBINATUAK  
OGITARTEKOAK · TOSTAK  
MENU BEREZIAK

**943 36 91 39**

[www.artzabaljatetxea.eus](http://www.artzabaljatetxea.eus)



**Okindegia-Gozotegia**

**LABE-GOXO**



**Patxi**  
PATXI JALETXEA

· bazkariak EGUNERO  
· afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361



# Artikutzan barrena



Argazkian ageri diren mendizaleek Artikutzako trenbide zaharreko bidea osatu zuten.

Andatzakoak deituta, Artikutza aldean izan berri dira. Oiartzungo Karrika auzotik Artikutzako sarrerako Exkaxera, trenbide zaharreko ibilbidea egin zuten argazkiko mendizaleek.

“1905 eta 1918 urteen artean, 6 bagonetaz osaturiko ikatz-lokomotorak burdina, kaolina, trenbide-trabesak eta posteak garraiatzen zituen. Pertsonak garraiatzeko bago-

neta berezia ere bazuen, eta bertan, Oiartzundik Artikutzaraino medikua joateaz gain, Goizaringo seme-alabak joaten ziren eskolara”, Andatzakoek ohar bidez adierazi digutenez.

## Eskubaloia selekzioara deituak izan diren jokalaririk

### Abenduak 18, igandea

■ 15:30 Gizonezko infantilen euskal selekzioaren entrenamendua, Urdulizko Iparralde Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko Eneko Furundarena Maiz deitu dute hitzordura.

■ 17:00 Emakumezko jubenilen selekzioaren entrenamendua, Etxebarriko frontoian. Usurbil K.E.-ko kide Ane Irazabal Esnaola

eta Estitxu Berasategi Eizagirre deitu dituzte hitzordura.

■ 17:30 Emakumezko jubenil promesen selekzioaren entrenamendua, Orioko Karela Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko kide Eider Makazaga Estella, Nagore Lertxundi Olazabal, Nahia Arbizu Zabal eta Ainhoa Illarramendi.

■ 17:30 Gipuzkoako jubenil pro-

mesen selekzioaren entrenamendua, Urdulizko Iparralde Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko kide Joseba Errazkin Bermejo eta Eneko Iribar Zumeta deitu dituzte hitzordura.

■ 17:30 Gizonezko kadeteen selekzioaren entrenamendua, Urdulizko Iparralde Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko kide Julen Nazabal Aisa deitu dute hitzordura.

### Eskubaloia Kiroldegian Abenduak 17, larunbata

■ 09:15 Benjamin neska-mutilen eskubaloia topaketa.

■ 11:00 Alebin neskek, Buruntzaldea: Udarregi 5A-Urnieta 6

■ 12:00 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Hernani

■ 13:00 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Amenabar D

■ 15:45 Kadete neskek, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Ereintza

■ 17:30 Jubenil neskek, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Ereintza

■ 19:30 Senior mutilak, 1.nazionala: Ucin Aluminio Usurbil-Gure Auzune

### Futbola Haranen

#### Abenduak 17, larunbata

■ 09:30 Alebin mutilak: Udarregi 5A-Udarregi 6B Udarregi 5B-Udarregi 6A

■ 11:00 Infantil mutilak: Usurbil F.T.-Urnieta K.E.

■ 16:00 Jubenil mutilak: Usurbil F.T.-Ekintza K.E. “A”

### Hurbilago San Silvestre lasterketa

Zazpigarren ediziorako izena aurrez eman beharko da. Ohi bezala doan, hurbilago.com atarian edo Hurbilago Elkarteko establezimenduetan. Lasterketa herrikoia, abenduaren 31n abiatuko da 17:00etan frontoitik.

## Gaztelekuko ekintzetarako baimenak aurrez aurkeztu behar dira

Gabonetarako eskaintza prest du Gaztelekua. Ekintzotan parte hartzeko ohartarazi dutenez, “guraso baimenak Gaztelekuan jaso behar dira”. Argibide gehiago Gaztelekuan

jaso daitezke: San Inazio kalea, 3 zenbakia.

gaztelekua@usurbil.eus  
943 371 050

■ Abenduak 26, astelehena: 16:30 Film proiektzioa Gaztele-

kuan, DBH 4 taldearentzat.

■ Abenduak 29 osteguna: 15:00 DBH4koekin Txuri Urdinera.

■ Abenduak 30 ostirala: 09:45 DBH1ekoekin Bilbora.

■ Urtarrilak 2, astelehena:

15:00 DBH2koekin Txuri Urdinera.

■ Urtarrilak 4, asteazkena: DBH3 taldearekin ETB-ren Gutta gutarrak ikustera. Irteera 14:15ean Gaztelekutik.

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra  
  
**693 059 392**  
uraitz@uraitz.com USURBIL

**Josue**  
Igeltseritza  
 **606 37 21 05**  
Atallu pol.28 USURBIL

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskainet.net  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
**943 37 10 42**  
Zubiaurrenea 5

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Usurbilgo udalak etxebizitza bat jartzeko du enkantean. Gubxieneko lizitazioa: 106.323 euro. Informazio gehiagorako: 94 337 19 51 edo kon-tratazioa@usurbil.eus

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, sarrera zabala, komun bat. Eguzkitsua, epela. Gela guztiak kanpoaldera, leihoarekin. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 eta 56) eta garajea 50m<sup>2</sup> eta terraza 9m<sup>2</sup>. Igogailua, fatxada berritua. Oso argitsua, bista onak. 679002101

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukalea, jantokia aparte eta trasteleku. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

78m<sup>2</sup> pisua Atxegalden. 4 logela, 2 komun, sukalea, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Igogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

BOE-ko 79m<sup>2</sup> etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukalea... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trasteleku. 629631838

2 gela, komun, sukalea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komun, hall, sukalea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaian. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m<sup>2</sup>. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, eskilekua, egongela, 2 logela eta komun. Komun salbu gela guz-

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

tiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

## Alokairuan

Pisu bat alokairuan Santuenean. 2 logela, sukalea, egongela, komun. Kapritxo jarria. Animaliak ez dira onartzen. 667 680 236.

Alokatutako etxe baten bila nabil. 550 euro gehienez, bi geletakoa, Kaxkoan ahal bada. Txakurra daukagu. 665 319 105.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen.

Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405.

Galtzaragainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Suzuki Vitara salgai. Diesela. 1998. urtekkoa. Korrea aldatu berria. 630 490 844.

Garaje bat saltzen dut Erdiko-kalea, 10 zenbakian. 2 kotxe-entzatz. 48.000 euro. 699 720 940

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro,

Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsua. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxeentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadrokoak Santuenea 17. 615149900.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Etxe zerbizuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxe zerbizurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jate etxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperekin egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrik emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrik, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketak. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, irailetik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxe etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziarekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan,



**Zorionak**  
**Intza!** 4 urte gure etxe ko larroxak. Muxu handi bat. Etxe koak.



**Zorionak Anne eta Beñat!**  
Abenduaren 18an gure printzesak 5 urte egiten ditu, bere anaiak 3 urte egin eta hilabetera. Zorionsu jarraitu maitiak!



**Zorionak Nora!**  
Zu beti prest urtebetetze festa ospatzeko eh? Karmeloren tar-ta, aitona ren tortilak... Luxuzko laguntzaileekin edonork! Ongi pasaaaa, muxu denon partez!



**Zorionak Izar!** Abenduaren 24an 4 urte egingo dituzu. Zorionak maitia etxe ko guztion partez eta, bereziki, aita xo, amato eta Amaiurren partez. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu!!



**Zorionak**  
**Odei!**  
Muxu pila bat! Oso ondo pasa zure urtebetetzean!



**Zorionak Amona!!**



orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketan. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziarekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekutan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatebixeren batean harraskako garbiketak egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da pro-

paganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatria eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna

eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

#### BESTELAKOAK

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilita) eta enkortxadora

salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 1,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2 - 3 urteko ume batentzat. Arroxa. Tel. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Baserrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokoalden, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuzko txaketa beige bat galdu zen uztailaren amaieran, anbulategi erdigune inguruan. NOAUA Ira ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzaingora haurrentzako botika eta higienarako produktuz betetako laranja koloreko nezaser edo bo-

tikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoan galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiardo Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostik elkartearen. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polar bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztailako bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kilo. 657 714 355

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

3 plazako eta 2 plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negozio-garri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688 888 176. Pablo.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

|                                   |             |                                 |                   |
|-----------------------------------|-------------|---------------------------------|-------------------|
| Udala.....                        | 943 371 951 | Abere-Landare Babeslea.....     | 943 376 650       |
| Atez ateko bulegoa.....           | 900 776 776 | Taxia (Angel).....              | 607 928 770       |
| Udaltzaingoa.....                 | 943 361 112 | Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza)..... | 677 373 466       |
| Udal zerbitzuak (Brigada).....    | 943 370 148 | Eusko Tren.....                 | 943 470 976       |
| Sexu Aholkularitza Gunea.....     | 697 919 516 | LurraldeBus.....                | 943 000 117       |
| Gizarte Zerbitzuak.....           | 943 377 110 | Korreo - posta zerbitzua.....   | 943 362 894       |
| Deputazioa - Basetxea.....        | 943 361 215 | Anbulategia.....                | 943 362 013       |
| Bake Epaitegia.....               | 943 372 336 | Amenabar botika (Iehen Oa)..... | 943 376 076       |
| Udarregi Ikastola.....            | 943 361 216 | Iturralde botika.....           | 943 363 395       |
| Haur Eskola.....                  | 943 374 061 | DYA.....                        | 943 464 622       |
| Zubietako Lanbide Eskola.....     | 943 364 600 | Gurutze Gorria.....             | 943 272 222       |
| Zubietako Herri Batzarra.....     | 943 372 077 | Emergentziak.....               | 112               |
| Hastapen tailerrak.....           | 943 360 465 | Genero-indarkeria, arreta ..    | 900 840 111 / 016 |
| KZgunea.....                      | 943 023 684 | Gonzalez Ehorztetxea.....       | 943 362 163       |
| Oiardo Kiroldegia.....            | 943 372 498 | Kutxabank.....                  | 943 361 202       |
| Sutegi Udal Liburutegia.....      | 943 360 692 | Euskadiko Kutxa-Laborala .....  | 943 364 740       |
| Zumarte Musika Eskola.....        | 943 371 594 | Banco SabadellGuipuzcoano.....  | 943 370 006       |
| Etumeta AEK euskaltegia.....      | 607 609 379 | Banco Popular Español.....      | 943 370 411       |
| Kalezar Eguneako Zentroa.....     | 943 365 249 | BBVA.....                       | 943 377 155       |
| Gure Pakea Zahar Egoitza.....     | 943 368 770 | Caja Rural Kutxa.....           | 943 368 842       |
| Gure Elkarte Zahar Egoitza.....   | 943 371 751 | Argindarra - Iberdrola.....     | 901 202 020       |
| Arrate Zahar Egoitza.....         | 943 366 340 | Gas naturala - Naturgas.....    | 902 123 456       |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia..... | 943 361 239 | Telefonica.....                 | 1004              |
| Noaual Kultur Elkarte.....        | 943 360 321 | Euskaltel.....                  | 900 840 840       |

## Goardiako farmaziak

|                      |                                         |                                 |
|----------------------|-----------------------------------------|---------------------------------|
| <b>Osteguna 15</b>   | ACHA-ORBEA                              | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| <b>Ostirala 16</b>   | ORUE                                    | Jaizkibel plaza 2. Lasarte      |
| <b>Larunbata 17</b>  | URBISTONDO                              | San Franzisko 1. Lasarte        |
| <b>Igandea 18</b>    | URBISTONDO                              | San Franzisko 1. Lasarte        |
| <b>Astelehena 19</b> | GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte |                                 |
| <b>Asteartea 20</b>  | ORUE                                    | Jaizkibel plaza 2. Lasarte      |
| <b>Asteazkena 21</b> | DE MIGUEL                               | Kale Nagusia 32. Lasarte        |

## Abenduak 15 - abenduak 25

|                     |                                      |
|---------------------|--------------------------------------|
| <b>Osteguna 22</b>  | LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte |
| <b>Ostirala 23</b>  | GIL Kale Nagusia 24. Lasarte         |
| <b>Larunbata 24</b> | LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte |
| <b>Igandea 25</b>   | LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte |

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
URRUTIA YURREBASO, MAITANE  
Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani  
943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda abendua

## 16 ostirala

- Kantu emanaldia Kaleragunean.
- Jostailu Erabilien Azokarako bilketa 17:00-19:00etara Sutegin.
- Gabon festa Santuenean (ikus azpian).
- Gure Esku Dago: taldearen eta manifestuaren aurkezpena. 19:30ean frontoian.

## 17 larunbata

- Kaosa eta Dilistak jaialdia (ikus azpian).
- Mus txapelketa Kaleragunean. 10:15ean hasita.
- Jostailu Erabilien Azoka. 11:00-13:00 frontoian.
- Garazi filma Sutegin. 19:00etan.

## 18 igandea

- San Tomas Azoka.
- Kaleragunean: Oriaren jaitsiera, 11:30ean Mapiletik Oriara.
- 12:00 Ekitaldia Orioko Herriko plazan eta mokadu txiki bat.
- 18:00 DJ Olarius.

## “Garazi” (1959), artzainen bizimoduari buruzko dokumentala

Nafartarrak taldeak *Garazi* izenburua daraman filma proiektatu du larunbat honetan, abenduaren 17an, 19:00etan Sutegin.

1959ko irudiak biltzen ditu, Jacques Krier eta Jean Claude Bergeretek zuzendu eta 30 minutuko iraupena duen ikus entzunezko lan honek. “Kamerak eta zinemagileen jakin-mina Arnostegi bezala ezagutzen den ingurura igoko dira, Orbaizeta eta Eihalarre artean aurkitzen den mugako txoko txiki batera. Han, mendiko txabolan, Ellande Etchehandy artzaina egoten da udaberrian eta udan”.



Larunbat honetan, 19:00etan Sutegin.

Dokumentalean, “zuri-beltzezko irudi sinesgaitzen bidez erakutsiko zaigu nolakoa den eguneroko bizitza mendian”.

### Ostiral honetan, Gabon Festa Santuenean

Santuenea Elkarreak arratsalde-pasa ederra prestatu du ostiral honetarako. 17:30ean Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa; 19:00etan otarren zozketa eta 19:30ean txistor jana. Gabonetako tailer artistikoan eginiko lanak ere, larunbata birtarte izango dira ikusgai.

### Larunbat honetan, Jostailu Erabilien Azoka

Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarreak, trukea eta berrerabilera sustatzen duen Jostailu Erabilien Azoka larunbat honetan ospatuko da, 11:00-13:00 artean frontoian. Aurrez, material bilketa egingo da abenduaren 15 eta 16an Sutegiko erakustaretoan, 17:00-19:00 artean.

### Datozenak

#### Kaosa eta Dilistak jaialdiaren 3. edizioa

Musika eta dilistak batuko ditu, Usurbilgo Gaztetxeak larunbaterako antolatutako jaialdiaren hirugarren edizioa:

#### Abenduak 17, larunbata

Usurbilgo frontoian:

- 12:00 Dilista txapelketa. Ekarri osagaiak eta eltzea.
- 14:00 Herri bazkaria (borondatearen truke).
- Ondoren, sari banaketa, jolas herrikoiak eta txapela dutenen argazkia.

Usurbilgo gaztetxean:

- 20:00 Kontzertuak: Asinus, Metralleta, Pato Pato, Gaitze, Hell Division, Paniko, Julio Alberto eta Kamorrah.
- Oharra: txapela jantzita etorri. Antolatzailea: Usurbilgo Gaztetxea.

#### Igandean Oriaren jaitsiera

11:30 “Theslari eta Deportatupei keinu bezala Oriaren jaitsiera txalupaz, Aginagako Mapildik Oriara”.

12:00 Ekitaldia Orioko Herriko plazan eta mokadu txiki bat.

18:00 DJ Olarius.

Informazio gehiago: kalerakalera.eus

# ELORZA

OBRAK ETA  
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182



# ETXEBIZITZA ENKANTEAN



Eskaera egiteko  
azken eguna:  
**ABENDUAK 20**

Lizitazioko gutxienezko prezioa:  
**106.323'45 euro**

Lizitazioko gehienezko prezioa:  
**132.823'45 euro**

Informazio gehiagorako: **943371951**  
edo [kontratazioa@usurbil.eus](mailto:kontratazioa@usurbil.eus)

# URDAIRA

## Sagardotegia

Abenduak 17, LARUNBATA  
**BARRIKOTEA**  
**20.00h Urdairan**

**Aginaga 943 37 26 91**



# URTINEA

Gabonetan...  
pazko loreak,  
gabon zuhaitzak,  
apaingarriak...

**igandetan irekia!**

San Esteban auzoa, Usurbil 943 36 22 55



**jostailu denda**  
**xirinbolo**

\*opariak bukatsu arte

Etxebeste Kalea, 15 943 37 75 96 Usurbil





A composite image featuring two green beer bottles on the left and a glass of beer with lemons on the right, set against a dark background.

- 

